


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko maiatzaren 13a / IV. urtea / 127. zenbakia

Bi hormetara


JOSETXO AZKONA



Egun kirastuen harian

Lehen gremioko langileak galdetu zidanean, berehala iruditu zitzaidan neu nintzela telebistako iragarkia-
ren protagonistetako bat: deseroso samar sentitu nintzen. Galdera planteatu zidan bezala, «zer, nola nahi duk faktura, B.E.Z.rekin ala B.E.Z.ik gabe?», nahiko maltzurra zela deliberatu nuen. Izan ere, supitoki ikusi nuen nola eskola bateko mahai baten anka edota ospitale bateko gaixo baten gazur-poltsa desagertzen ziren, erantzunkizun osoa nire bizkarraren gainean ez beste leporatuz... «Beno, egidak legearen arabera, B.E.Z. barne, jakina». Eta osoki dirau oraindik eskola horretako mahaiak, nire esana zintzo bete zuen eta. Bigarren gremiokoak, bere aldetik, galdera bera luzatu zidan bere lana amaitutakoan. Ezetz, zergarik gabe nahi nuela erantzun nion honokoa. Eta nire kontu geratu da, hargatik, gaixo ezezagun horren osasun egoera txarrera joan izana. Hirugarren langilearekin, azkenik, ero-soagoa izan zen tratua; fakturarik ere egiten ez zuelako. Hainbeste lanorduren ordainez, horrenbeste diru eta kitto. Pirata honen jokabidea zuzenagoa da besteena-
rekiko: ez fakturarik ez zergarik ez aitor-
tzearen erantzunkizuna isilean banatzen baitzen bion artean. Ez nuen zirt edo zart egin beharrik, ezta nire burua ziritu behar ere: paretsu jokatzeko genuen engainuan. Eta beldur naiz ez ote naizen kinka beretik pasako hurrengo egunetan. Etxebizitzaz aldatze honetan pare bat gremio falta dira oraino, beren lana burutu eta fakturak aurrean jartzeko.

Horren gogaikarria suertatu diren azken egunetako girotik aldentzearen, zer hoberik hibai baten iturburura jotzea baino! Hartarako, Urrunzure-ren jaiolekura abiatu naiz oxigenatzeagatik. Sakana aldera borborka ixurtzen du bere txorrota, Aralar ertz batetik: Ihabar eta Irainetatik gertu. Ederra bazterra, eta, lotsagarria, bide batez, hainbatek nola tratatzen duten ikustea: lur jasoa nonnahi pistak eraikitze-
ko makinatzarrengatik, moto-kross eta 4x4 ibilgailuetarako arrastoak, plasti-
koak... eta hara non, harri puska pila. Bertako batekin mintzatuz, jakin dut pasadizoaren berri. Kontua da inguruetako zinegotzi batek etxe berri bat egin nahi duela. Kamioa hartu eta hara doa, iturburuaren hurbil paratuta dagoen (zegoen) presaren harriak bildu eta etxeratzeraz. Egindako lardaskeriaz jabetzen da gero alkatea, eta harriak bere jatorriko lekura itzultzeko eskatzen dio. Bai, zera! Eta ez da pleno berezirik izan, batzorde iker-
tzailerik sortzeko beharra ere ez. Funtsean ez da ezer gertatu. Nire pasadizoa eta zinegotzi honena ez dira bat ere espektakularrak. Ez lukete inongo gobernu-
rik kolokan jarriko. Eguneroko huskeria; tipia-
ren kiratsa.



Osasuna 45 aldiz izan da txapeldun, eta jokalari guztiak bertakoak dira. Fama badute inguru guztietan, eta elastiko gorria, prakak urdinak eta galtzerdiak bi kolorekoak dituzte. Ez da erdizkako egia, edo ametsa, bigarren mailara joan den honetan. Guatemalako Osasunaren datuak dira, Sololako herrialdeko Santiago Atitlanen duela 50 urte osatu zen Osasunaz ari gara. Apaiz nafar batek fundatuta, urte hauetan guztietan Atitlan lakuko liga erregionalean nagusia izan da, nahiz eta oso baliabide eskasak eduki. Orain, gure Osasunarekin harremanak sendotu nahi dute, eta laguntzeko deia egin diete hemengo agintariei, Adolfo Jimenez gobernuz kanpoko erakundeetako partaidearen bidez. Haiek elastikoak, baloiak eta dirulaguntza xumeren bat nahi dute, eta trukean herria eta taldea ezagutzeko parada eskaintzen dute. Materiala eta kultur trukaketa. Jakinduria maia elastikoen ordainetan. Ez da negozio txarra.

Guatemalako gorritxoak

IKASTAROAK

'Ahozko eta idatzizko adierazpena' izeneko ikastaroa antolatu dute heldu den asterako GITE elkarteak eta Arturo Kampion euskaltegiak. Astelehen, astearte eta asteazkenean emanen da, arratsalde, Bittorio Lizarragak zuzendurik. Matrikula egin edo informazio gehiago eskatu nahi duenak elkartera joan edo deitu besterik ez du, 22 59 91 telefonora.

BERTSO SAIOAK

Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua bertsolarien saioa izanen da gaur, maiatzak 13, Arribeko Elkartean. Bertso afari moduan antolatua, gaueko 21.00etatik aurrera izanen da.

Xabier Amuriza eta Millan Telleria bertsolariak ariko dira bihar, maiatzak 14, Gaintzako elkartean, gaueko 21.00etatik aurrera.

Zeberio eta J. Lizaso bertsolarien saioa izanen da bihar larunbata, hilak 14, Arbizuko 'Aldabide' elkartean. Bertso afari moduan antolatua, gaueko 21.00etan hasiko da.

Bittor Elizagoien, Xabier Amuriza eta Estitxu Arozena ariko dira gaur, ostirala, Aurizberriko Basajaun tabernan, bertako Euskara Zerbitzuak antolatu duen mus txapelketaren finala dela eta. Finalak 20.00etan hasiko dira, eta bertso afaria, 22.00ak aldera.

BESTELAKOAK

Negu Gorriak, Soziedad Alkoholika eta Beltzez musika taldeen kontzertua izango da bihar, maiatzak 14, Burlatan, Nafarroa Intsumitua taldeak antolatuta. Horretarako propio jarriko duten karpa batean izanen da eta sarreak 1.200 pezetan salduko dira bertan. Aurretik erosiz gero 1.000 pezetan.

'**Babalibu, Babaliba**' izeneko antzezlanaren aurkeztuko du aste-buru honetan Hika taldeak Aitzoain eta Zare herrietan. Udaberriko Bira programaren barruan, bihar Aitzoaingo pilotalekuan ariko dira, arratsaldeko 18.00etan, eta igandean, berriz, Zaren, 12.30etatik aurrera eta herriko pilotalekuan.

Jaume Funes psikologo eta kazetariak mintzaldia eskainiko du gaur, maiatzak 13, NUPeko 4. Gelan, arratsaldeko 19.30etatik aurrera. Gaia 'Adin txikikoa izan eta Justiziaren eskutan erori' izanen da.

NAFAR KRONIKA


JON ALONSO

Nor bere bakardadean

Nor bere bakardadetik iheska gabiltza, mundua mundu denetik. Nork, bere bakardadean, nahi baino denbora gehiago ohi du bere baitako amildegietan barna galtzeko, erortzeko agian. Bakardadearekin batera zuzperten den barnerako joerak oso paisaia ezberdinak aurkitu ohi ditu ba-koitzenaren baitan, eta ez da harritzekoa, bakardade guztiak

koa ez den arren, are, guztiz egiazkoa, errealtatearen parte delarik. Fikziorik ezean, hotzikara batek gogorazten digu badakigula horren berri. Ez dakigu, ordea, ez dakigu ez eta jakiterik izango ote dugun ere, aldiz, Roldan edo Rubio-ren bakardadearen nolakoaz. Jakingo dugu poxiño bat haien kontu-korronteez, haien parrandez, haien ohiturez. Baina

tikoa— bezalako, sortzez eta jatorriz faxista den eskuin politiko bat neoliberal bihurtu nahi izatea Utopia aise gaintzen duen Desira dela, eta, nonbait, Ezina bizi den etxe berberean bizi dela jakinarazten diguna. Eta gero badago zenbait euskal eliteren bakardadea, orokorrean etsipen mingotsaz blaiturik besterengatzen dutena. Haien arra-



ez direlako berdinak. Lumaren galbaheaz pasaturiko batek, adibidez, jende multzo oso zehatz baten barruko paisaiari begira jarri gaitu. Bakardade hori fikziozkoa da, baina ez gezurrezkoa, arteak errealtate ordezkatzen duela aldarrikatzen duen ber. Kanta batek 565 kolpe huts gure bihotzean metaforaren bidez izendatzen zituen horien banakakoa bakardade besterenganatu ezinak, ordea, ez du apenas fikziorik merezi izan, gezurrez-

ez ezer, antza, kanpokaldeko zirrikituetatik barrurantz so eginez gero ikusten denaz. Inork ez gaitu paisaia horri begira jarri. Beste bakardade batzuk, fikziozkoak hauek ere, irudi bidezkoak dira; *Nafarroa Kapitaina* deituriko izaki mitikoarena, esate batera, ironiaz eta xamurtasunaz baliatuz Utopia eta Absurdua auzoak direla jakinarazten diguna; eta beste egiazko batzuk, hauen ondoan, *Nafarroa Lehendakariarena*—izaki ez hain mi-

zoiak erabat ukatu gabe, gogorazi nahi dizkiet Savaterrek esandakoak, maiatz honen hasieran eta Iruñeko ikastetxe batean: «etsipenak zerbait konponduko balu... Batek joera intelektual erakargarrienak bilatzen ditu, eta etsipena ez da horietako bat. Ez naiz fio etsipen hori kutsatzen dutenez. Ziurrenik, besteez profitatu nahi dute».

Horiek guztiak badira, eta beste hamaika. Nork berea.

ASTEKO PERTSONAIK



Fernando Arretxe
Pilotaria

Askok uste ez bazuten ere, nahikoa erraz irabazi zuen Fernando Arretxek Ladis Galarzaren kontrako partidua, hamar tantoko alde atera baitzion. Garaipen honekin ia ziurtatu du finalan izatea, oraindik ezin aurreratu den arren. Partidua ez zen ona izan, huts eta opari gehiago izan baitzen tanto ona baino, baina ikusmin handia sortu zuen, final aurreratua zela baitzieten askok. Azkenean horrela gertatzen bada eta partidua larunbatean jokatu zena bezalako ateratzen bada, txapela erraz irabaziko du Arretxek. Errandonea gaintitu beharko dute biek horretarako, ordea, eta ez da lan erraza izango. Arretxek berak aitortu zuenez, «Errandonea konfiantza eta gogo handiz heldu da gora eta segur jarriko didala partidua arrunt zaila».



Fermin Ziaurriz
Parlamentaria

Fermin Ziaurriz EAKo parlamentaria izendatu dute Huarte enpresaren adjudikazioak ikertuko dituen batzordeko lehendakari eta bozeramaile. Astelehenean hasi eta hurrengo aste osoa izanen dute parlamentariak enpresa horren uestezko irregulartasunak aztertzeko. Horretarako, 35 agerraldi antolatu dituzte, hiru egunetan egingo dituztenak. Hitz egitera deitu dituzten artean, Jorge Esparza Huarteko zuzendari komertziala, Antonio Aragon Herrilan sailburu ohia eta Gabriel Urralburu lehendakari izana daude. Aste honetan goizez eta hurrengoetan egun osoz ariko dira lanean batzordeko kideak, baina lan gehiegi da bi astetan egiteko, datu ugari baitituzte mahai gainean. Heldu den ostiralean emango dituzte ikerketaren emaitzak.

AHAZTU GABE!

TXIRRINDULAREN MUSEOA



Garai guztietako bizikleta mota ezberdinak izanen dira ikusgai aste-buru honetan Altsasun, aurrekoan bezala, bertan sortutako Txirrindularen Museoren Fundazioak antolatua. Larunbat eta igandean zabalduko dute, Burunda pilotalekuan, goizez eta arratsalde. Bertan, 40 bizikleta mota ikus daitezke, material ezberdinez eginak; horrekin batera, txirrindularitza munduarekin zerikusia duten beste gauza batzuk ere badira. Nola ez, Indurainen txirrindulari bat han dago, Altsasuko Razesa enpresak egin baitzuen. Luis Ocañaren bizikleta bat, Hinault, Robert Millard eta Anquetil txirrindularien mailloak, herriko protagonisten irudiak, dira, besteak beste, erakusketan ikus daitezken artikulak. Bizikleten artean, 1.860 urteko 'velocipede' izeneko makina, 1.880ko trizikloak, 1.896ko txirrindulari bat, zurez egindako 1922ko beste bat eta 1945ean Goardia Zibilak erabiltzen zituenak daude ikusgai.

JENERO XUMEKOAK

Bluesman-en oroimenak

Ni tabernarik zikinean ibilia naiz. Askotan drogaz pagatzen zizuten, besteetan neskaz. Noiz behinka diruz, eta hilabetean behin hirurekin batera, eta hori loria bera zen.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Malerreka

Langarra: euskara zoko guztietara


A.B. / IRUNEA

Asteazkenean aurkeztu zen Iruñean Malerrekako Langarra Euskara taldea, bere sorreraren zergatia eta helburuen nondik norakoa azaltzeko. Iazko udaberrian sortutako talde honek, kontuan harturik inguruan euskarak duen egoera, bi helburu mota ditu. Epe luzera begira euskararen normalizazioa, eta epe laburrera taldea sendotu eta handitzea, ahalik eta jende gehiagoarengana heltzeko, eta euskararekiko kontzientzia sortzea.

Dena, esan bezala, iazko udaberrian sortu zen, Euskara Zerbitzuak antolatutako Soziolinguistika ikastaroan parte hartu zuten artean. Kezka sortu zuen haien artean euskararen egoera eta etorkizunak, eta bereziki Malerrekakoak: ingurunea euskalduna izanik, erabilera guttituz doanez, ezin itxaron erabat galdu arte. Horregatik lanari ekin zioten.

Eguberrietako oporrak aprobetxatuz, herriz herri ekitaldi sorta antolatu zuten, eta emaitza positiboek bidea hori zela erakutsi zieten. «Gure hurbileneko zeregina taldea bailarako herri guztietan ezagutaraztea zela hasieratik argi ikusi genuen», azaldu dute, «eratu beharreko guztia ez zela Donezteben bakarrik egin behar eta, aitzitik, herrietan bakarrik antolatzea aberasgarriagoa zela».

Berrogei bat lagunek osatzen



Herri guztietan lan egin beharra azpimarratzen dute taldekoek.

dute taldea, herri eta lanbide guztietakoak, eta dagoeneko banatuta daude hiru lan taldetan. Horietako bat bilerak antolatzeaz arduratuko da, deialdiak egin, maiztasunak finkatu eta komunikabideei emaitzak jakinarazteaz. Beste talde baten zeregina elkarrekin harremanak izango dira. Horretarako bailarako elkarte guztiekin harremanetan jarriko da, etorkizunean euskararen erabilerrari buruzko akordio edo hitzarmena egin ahal izateko. Hirugarren taldea ekintza taldea da. Azpildetan banatuta dago,

eta bakoitzak talde guztiendako ekintza egokiak prestatzea izango du helburu.

Taldeak egin duen aurkezpenean azaldu duenez, alde ederra dago euskarari buruz inkestek diotenaren eta errealtatearen artean. «Jakin badakigu karrikan entzuten duguna eta inkestak ematen dizkigun zenbakiak urrutitik ere ez datozela bat. Erabilera arrunt kaskarra da eta erranenezake hori dela euskarak inguru honetan duen arazo larriena». Arloz arlo irakaskuntzan egoera ona dela diote, ia % 100ek

D erudian ematen baitute izena, baina hurren artean ere sumatzen da erabilerrari dagokionez aipatu arazoa. Bestalde erakunde publikoetan, merkataritzan edo udaletan, oro har, eta aldeak alde, kontzientzia falta handia nabari da. Egoera latza ez izanik ere, aurre egin beharra azpimarratu dute Langarrakoek. «Galera ez da sekulakoa, baina handiagok eduki aitzinetik, lanean hasi behar dela iruditzen zaigu».

Arbizu

Gasteentzako euskarazko kirol ekintzak prest

IRUNEA

Aurtengo udarako gazteentzat euskarazko kirol ekintzak antolatu ditu dagoeneko Sakanako Mankomunitatearen Kirol eta Euskara Zerbitzuak. Aurtengo egitaraua ekainean hasiko da, erreka jaitsierarekin, Huescako Gallego ibaian, eta hil berean eskalada ikastaroa izango da Irurtzungo rokodromoan. Uztailean zaldi ikastaroak izango dira Altsasun eta Etxarri-Aranatzen, eta piraguismoa ekainean eta uztailean ikasi ahal izango dira, Izurdiagan eta beste tokietan. Herri bakoitzak badu bere arduraduna, baina informazio gehiago nahi izanez gero, Sakanako Kirol Batzordera (46 05 89) edo Sakanako Euskara Zerbitzura (46 07 51) deitzea besterik ez duzue. Kontuan harturik tokiak mugatuak direla, izena lehenbailehen ematea komeni da.

Urepele

Urre meategi zaharrek herriari bere izena eman bide zioten

LETXEZAHARRETA / BAIONA

'Ikuska' aldizkariak, bere bosgarren zenbakian, informazio ugari ematen du Ipar Euskal Herriko urre meategi batzuek eta bereziki Urepele herrian izan zirenez. Horiek omen zioten izena eman herriari eta ez 'ur epel-ek'.

Eric Dupre-Moretti eta Christian Saint Arromanen artikulua dokumentatuak badu harridura sortzekorik. Agertzen dutenez Euskal Herria erromatarren garaian, duela 2.000 urte, meategi gune aberatsa gertatu zen. Historialariek maiz Strabon geografografo grekoak erabili hitzak aipatzen dituzte: «Tarbeliek urre meategi emankorrenak dituzte zeren han egin zuloetan urre pus-

kak biltzen baitira ahurraren betetzerainokoak». Tarbelli euskal populuaren hiri nagusia Akize zen, 'Aquae Tarbellicae'. Lapurdi, Nafarroa Beherea, Baztan aldea eta Landetako hegoaldea bizigune zeukan. Meagintza toki askotan zen eta batez ere Urepele. Hor, 'Lezetako Kaskoa' tokian akitaniarren urre meategi handienetarik bat zela baieztatu dute bi adituek.

Maiz uste da Urepele hitza 'ur epel-etik' datorrela. Uharriet apaizak 1964an idatzi zuen «Iturri Handiako urre epeltasunak» hori ekarri zukeela. Zioen 15 graduko tenperaturak hori esplikatzeko zuela. Lemoinek 1977an eta Orpustanek 1991n hori baieztatu dute. 'Ikuska-ko'

artikuluaren idazleek, aldiz, diote urtean zehar tenperatura ertaina 12 graduko dela eta «hori epeltasun erlatibo» dela eta beste nonbait bilatu behar dela izenaren iturria. Beren ustez Urepele 'urrepe-tik' etorri dateke.

Artikuluaren egileek azaltzen dute nola identifikatu duten urre meategia. Meategi zaharren antza dauka: zulo handi bat, ia erreka baten forma duena, leze batena. Artikuluaren egileek baieztatu dute urre meategia zela hor: «Analisi mineralogikoek agertu digute urrea modu adierazgarrian aurkitzen dela». Diotenez «kontzentrazio txikia da baina hala ere ezohizkoa; tokika hiru gramo tona bakoitzentzat aurkitu dugu».

Navarrieriako iturritik

Juan Kruz Lakasta



Filiak eta fobiak

Gizakiaren burmuinean barrena abiatzen diren bideak okerrak eta bihurriak dira oso. Batzuek filietara garamatzate, eta besteek fobietara. Nire burmuinean, esaterako, bada bide zabal bat, fobia arraro batera heltzen dena. Ez naiz klaustrofobia, hidrofobia edo aragnofobia bezalako fobia arruntez ari, baizik eta Zirkofobiaz. Bai, zirkofobiak jota nago. Ez dakit zein den horren jatorria, agian ume nintzelarik kanzerrak Fofó eraman zuela, batek daki. Dakidan gauza bakarra zera da, ezin dudala zirkoa jasan.

Zirkoko pailazoez ez didate inoiz barre eragin, ezta irribarra ere. Betidanik pena ematen didate, besterik ez. Pena ematen didate euren txiste txarrek, eta pena handiagoa ematen dit, oraindik ere, pailazo berberak, euren txiste sorta bota eta gero, zaldien gorotza eta ekilibristen sarea biltzen ikusteak. Halaber, ezin ditut jasan zirkoko animaliak, horiei darien kiratsa, eta ume nintzelarik horiek nire aurrean pixa egiteko zuten erreztasuna. Ezin dut jasan Orinoko munstroa —buruan hiru ile dituen hori—, ezta suhiltzaile-



toreroa edota Juanita Banana bost hankadun behia.

Finen, karpa erraldioen azpian gertatzen den guztiak, bertan izaten den giroak, oro har, nazka ematen dit. Bada, hara non Nafarroa Intsumitua elkarte sorberriak kontzertua karpa baten azpian egitea erabaki duen. Bai, bihar 5.500 lagun har ditzakeen karpan ariko dira Burlatan Negu Gorriak, Beltzez eta Sociedad Alkoholika. Eta hortxe topo egingen dute nire fobiek eta filiek. Izan ere, karpafobiak jota banago ere, intsumisofiliak eta kontzertufiliak ere leku zabala dute nere burmuinean. Zeintzuk dira indartsuagoak, fobiak ala filiak? Hor dago koxka. Badaezpada ere, karparen sarreran norbait dantzari ikusten baduzue, ez perla kontzertura musutruk eta bultzaka sartu nahi duen norbait dela, seguru asko ni izanen naiz eta.

Bigarren mailara jaitsi da aurten Osasuna, baina gorritxoak txapeldu-nak ere izan dira. Guatemalako Solola lurraldeko Santiago Atitlango Osasuna nagusitu da bertako ligan, azken urteotan bezala. Bertara joandako Aita Mendiak fundaturik, duela 50 urte, Iruñeko Osasunarekin harremanak estutu nahi ditu orain taldeak, sikiera elastikoak lortzeko.

Guatemalako Osasuna, txapeldun

A. JIMENEZ / SANTIAGO ATITLAN

Santiago Atitlan Guatemalako Atitlan lakuaren ertzean dagoen herri bat da, 30.000 biztanle inguruko. Amerikako parajirik ikusgarrienetakoan dago kokatuta, 4.000 metrora altzatzen diren sumendiz inguratuta. Lakua bera ere sumendi-lapiko erraldoiaren antzekoa da. Inguru paregabe honetan sutuhil eta cak-chiquel etnietako indiarrek bizi dira. Kontraste ederra dago, beraz, sumendi, bertako biztanle —beren arrazaz harro, nahiz eta mendeetako zapalkuntza jaso duten— eta gu bezalako turistaren artean, lakuraren gainean zintzilik bezala dauden herrietatik bueltak.

—Iruñekoa zarela esan duzu? —galdetzen dit herritar batek indiar azentuz beteriko gaztelania batean.

—Halaxe da. Zergatik galdezen didazu?

—Zure hirian hemengo taldearen izena duen futbol taldea dagoelako.

—Zer izen du, bada, zure ekipoak?

—Atitlango Osasuna. Aita Alonsok esan zigunez Atitlango sendotasuna esan nahi du.

Chepe Reanda sutuhil etnikoa da mintzo dena. Hirurogei urte jada bizkarreraturik, bere garaian jokatu zuen ekipoaren historia kontatzen digu. Aita Juan Pablo Mendiak fundatu zuen 50eko hamarkadaren hasieran, baina orduan ez zion izenik jarri. Ondoren etorri zen Aita Restituto Alonso nafarra izan zen, 1961ean, bertako bi taldeei izena paratu ziona: Osasuna eta Obereña. Denboraren poderioz, Obereña desagertu egin zen, baina Atitlango Osasuna Atitlango lakuko liga erregionalako talderik onena bihurtu zen. Berrogeita bost urtetan irabazi du jarraian bertako txapelketa, Comercio, Naranjeras, Chacayaj edota Chanjuyu bezalako taldeen aurrean.

Izan ere, Aita Restitutok bazekien futbolaz. Entrenamenduak eta taktikak sartu zituen orduan, eta herrian kontatzen dutenez, taldearen arrakastak bi oinarri zituen. Alde batetik, bezperan kontzentratzen zituen jokalariek, mozkortu ez zitezen, eta bestetik, janariak eta bitaminak ematen

zizkien. Luxu bat, egunerokoa betetzea doi-doi lortzen zutenen artean. Txapelketa eskuratu ondoren —urte guzti hauetan ez du te behin ere galdu—, lehen mailako talde baten kontra partidua antolatu zen uztailaren 25ean, Santiago Egunean, eta nahiz eta hankutsik eta bertako jantziarekin jokatu, Santiagokoei irabazi zuten, hiriburuko Estudiantes taldearen aurka.


ARMADA EGOTZI ZUTEN

Guatemalako inguru turistiko garrantzitsuena izanik ere, ez dira bertara heldu soberrazko aurrerapenak, eta bisitariak dakarten dirua betikoen esku gelditzen da, hau da, hotelak eta jatetxeak dituzten atzerritar edo burgesiaren esku. Atitlan nekazaria da gehienbat, eta kafea, *cardamomo*-a (arabiarrei saltzen dieten espezia bat), edota *pitaya* eta aguakatea bezalako fruituei esker bizi da. Taldeak ez dauka dirurik, eta askotan etxe komertzialek emandako beste elastikoekin jokatu behar izan dute. «Ez genituzke erabili behar izango, aitaren ideologiaren begiruneagatik» diote, «baina ez daukagu» haliabiderik. Gure koloreak elastiko gorria, praka zuria eta galtzerdiak bi koloretakoak dira». Beste edozein kolorekin jokatu behar dutenean zinta gorria janzen dute buruan edo besoan.



Taldearen historiak ere harreman handia izan du herrialde honen historia lazgarriarekin. 1980an, Armadak Rother apaiza eta zenbait herritar hil zituen, tartean taldeko jokalaririk bat, Diego Rachan. Bertan esaten dutenez, soilik bere kanoa agertu zen. Orduan jaitsi egin zen futbolarekiko zaletasuna, jendea elkartzeko beldur baitzen, Armadako hartuko zutelakoan, baina partidua jokatu, jokatzeko ziren, ikuslerik gabe.

Eta 1990ean dena aldatu zen Santiagon. Abenduaren 1ean izugarritzko sarraskia egin zuen bertan Armadak, eta 13 herritar hil zituen. Orduan, herri osoa, alkatea eta apaiza buruan zirela, koartelaren aurrean paratu zen, eliza guztietako ezkilek jotzen zuten bitartean. Elkartasunaren etsenpluak laguntza handia jaso zuen bai Guatemalan bertan baita kanpoko erakundeen artean ere, eta Armadak utzi egin behar izan

zuen herria. Herrian osatu zen orduan Seguritasunerako Batzordea, eta bere Polizia antolatu zuen, makilaz horniturik. Halaber, gerrilariak ere gomendatu zieten herrian ez azaltzeko, eta egun Guatemala osoan oso estamatuak eta kontsideratuak dira. Herri osoaren elkartasunaren lekuko izan zen duela gutxi gertatutakoa. Armadarik gabe herrian, egun batean itsasontzi militarra agertu zen lakuan. Eliza guztietako ezkilak hasi ziren deika, eta herri osoak lakuaren inguruan giza katea osatu zuen, aurrera egiteko zuten asmoa azaltzeko. Itzuli egin behar izan zuten soldaduek.



Osasuna taldearen koloreak gorria eta urdina dira. Goian, partiduren ondoko atsendaldian. Ezkerraldian, Aita Restitutoren omenezko saloia, eta hemen goian Atitlan lakua. Eskuinean Osasuna taldea, oso-osorik, eta goian, 1990ean Armadak egin zuen sarraskiaren oroigarria. ADOLFO JIMENEZ



Elastikoak kulturaren truke

A. BARANDIARAN / IRUÑEA

Telebistaren bidez jakin zuten Atitlango biztanleek Iruñeko Osasunak lehen mailan jokatzeko zuela, eta kontrario gogorra zela. Izan ere, Guatemalan, nahiz eta zazpi bat telebista kate izan, oso baliabide gutxi dituzte bertako ekoizpenak egiteko, eta ohitura handia dago kanpoko telebistei erosteko, bereziki Espainiakoei eta Italiakoei. Futbol partidua, horrela, frankotan ematen dituzte hango pantailetan, eta hortik heldu zitzaizkien atlitandareei gorritxoaren partiduen berri.

Behin hemengo taldea ezagutua —aditua zuten, batez ere hemendik joandako jendeari esker, talderik bazela, baina ez zeukaten ikusia—, harremanetan jartzea besterik ez zen falta, eta hori Santiago Atitlanen maiz izan den nafar baten bidez egin dute.

Behin hemengo taldea ezagutua —aditua zuten, batez ere hemendik joandako jendeari esker, talderik bazela, baina ez zeukaten ikusia—, harremanetan jartzea besterik ez zen falta, eta hori Santiago Atitlanen maiz izan den nafar baten bidez egin dute.

Behin hemengo taldea ezagutua —aditua zuten, batez ere hemendik joandako jendeari esker, talderik bazela, baina ez zeukaten ikusia—, harremanetan jartzea besterik ez zen falta, eta hori Santiago Atitlanen maiz izan den nafar baten bidez egin dute.

Adolfo Jimenez ingeniariak urteak eman ditu Guatemalan, gobernu kanpoko erakundeen barruan, lan anitzetan, eta bera eta Atitlango agintarien artean erabaki zuten bi taldeak harremanetan jartzea, anaitasuneko hitzarmena lortzearen.


Horrela, Osasuna taldeko agintariak Jimenezek aurkeztu dien idazkian, Guatemalako taldeak dituen arazoak berri azaltzen da, eta atzamarren markaz egindako sinaduren artean, laguntza eskatu dute. Kirol materialik falta, sos eta babeslerik eza aipatu dute bertan, «eta taldearen garapenaren mesederako» kirol materiala edo laguntza eskatu dute Iruñeko taldeari. «Beti ere ahal duzun neurrian».

Idazkia Guatemalako Espainiako enbaxadorearen eskutitzarekin batera dator; hau ere bi taldeen arteko harremanen sendotzearen alde azaldu da. «Gustok nuke», idatzi du Manuel Piñero Fernandez Ezkurra presidente ohia igorritako eskutitzean, «Adolfo Jimenezek bultzatzen duen harreman honek harrera ona izango balu zuen artean», eta Atitlango Osasunaren historial luzea aipatu du. Asteazkenean aurkeztu zitzaizkien Osasunako agintariak eskaerak, eta hauek oso harrera ona izan bazuten ere, hurrengo presidentearen esku utzi dute azken erabakia.

Iruñeko Osasuna taldeari egindako eskarian laguntza eskatzen dute Atitlangoek, eta bereziki, elastikoak eta materiala.

«Ez litzateke iteluraguntza eskarera hutsa», azaldu du Adolfo Jimenezek, «kulturen trukateza baizik». Berak dioenez, «aberatsak dirua emango luke, eta pobreak kultura maia, eta jakinduria». «Atitlangoek elastikoak eta materiala jasoko lukete, eta hemengoek herria, hango jendea, hango kultura, berpizte indiarra ezagutuko lukete». Ertamerikako herriekin elkarlanaren arloan esperientzia izugarri zabal duen nafar honendako, biolentzia eta gatazka giroaren irudia ezabatzeke ere baliagarria izango zen ideia, aurrera eginez gero. «Beti ateratzen ditugu errepresioari eta egoera bortitzari buruzko berri zehatzak. Nire ustez bada garaia berri positiboren bat ere azaltzeko. Gainera, elkartasuneko ispilurik ederrena herrien arteko hurbiltzea da, eta hau aukera ona izan daiteke bi herriek elkar ezagutu dezaten».

Harremanerako proposamena egin dago, eta heldu den astelehenean bilduko den Osasunako Batzordeak hartuko du horri buruzko erabakia. Bitartean, Santiago Atitlango lankidetzak ez da eten. Hain zuzen ere, Espainiako Medicos del Mundo erakundeak antolatu berri duen proiektuariko bat herri horretan gauzatuko da aurki. Eta bertan bi nafar izango dira: Adolfo Jimenez bera, koordinatzaile gisa, eta Carlos Artundo Nafarroako Osasun kontseilari ohia eta gaur egun aipatu erakundearen Espainiako burua. Proiektuak 50 milioi pezetako aurrekontua dauka, eta ur-hormiketa ezartzea du helburua. Horretarako urtebete izango da bertan talde bat. Bitartean, elastikoen esperoan.



Iruñeko Hiria torneo itxiaren hirugarren ihardunaldiko partida, 1993ko abenduaren 29an jokatu.

Mario Gomez, 2.450 ELOkoa (Euskal Herri)-Alon Greenfeld, 2.590 ELOkoa (Israel).


1.d4,d5; 2.c4,c4; 3.e4,Zf6; 4.e5,Zd5; 5.Ac4,Zb6; 6.Ad3. Peoia babestuta dago (Ab5 xa). 6...Zc6; 7.Ae3,Ae6; 8.Zc3,Dd7; 9.gZ-e2,Ac4. Alfila peoien garapena oztapatzen zuen. Aukeratutako irtenbidea, ordea, ez da egokia, 'e5-eko' peoia oso aurreratuta dagoelako, eta alfilarren desagerketa txuriren onetan izanen delako.

10.Ac4,Zc4; 11.Db3,Zb6; 12.e6. Txit ondo hautatutako jokaldia. Ikus Koadroa. 'De6' ezin da jokatu ('d5' erantzunagatik). Beltzen defentsa apurtua geratu da.

12...e6; 13.0-0,0-0-0. Erdian geratzea arriskutsua zen. Baina horrela, erregea erasotzeko bideak badira. 14.aG-c1,g6; 15.Zf4,Ah6; 16.Zb5. Erregearen inguraketa nabaria da. Estuasun latza beltzentzat. 16...Eb8; 17.Ze6,Ae3; 18.e3,Za5. Gaztelua kentzeak ez zuen arriskua uxatzen: '18...Gc8; 19.bZ-c7,Gc7; 20.Zc7,Dc7; 21.d5'. 19.Dc3,aZ-c4; 20.Zd8,Gd8; 21.b3. Beltzek etsi zuten. Hasierako garapena eskasa izan zen, eta hortik heldu zitzaizkien gaitz guztiak.

Nire oroimenak

Uztaileko hamazazpigarren eguna zen. Arratsaldeko hirurak eta laurden inguruak ziren. Teideko irletariko baten edertasunari begira nengoelarik, nire barneko hotz beroa astiro-astiro goruntz zihoan. Bapatean, higitzen ari nintzela nabarmendu nuen. Itsasoarekiko eta nirekiko tartea hedatzen ari zen. Teideko sumendiko tontorra garbi ikusten nuen. Haize kilikagarri batek bultzatu ninduen leunki aurrerantz. Bultzadaren eraginez Marruecoseko itsas-ertzera jeitsi nuen. Marruecosen barneratzera nindoalarik,



Iñaki Oiharbide

(ALTSASU)

fante multzo bat ikusi nuen. Haiek bai zirela ederrak eta alaiak. Aurrerago nindoalarik hiri handi bat ikusi nuen, Kalkuta zela suposatu nuen. Bertako jendea enparantza baten inguruan bildurik zegoen. Aurrerago lurralde ezezagun bat igaro nuen. Hain txikia zen konturatzerako gaintitu nuela. Geroxeago Birmenia izeneko lurralde batetara heldu nintzen. Bertan jauregi handi eta liluragarri baten Iparraldean zegoen mendiaren gainlurrean elefante indartsu bat ikusi nuen enbor bat mugituz bere nagusiaren esanak jarraituz. Konturatzerako ilundurik zegoen eta loak hartu ninduen. Iratzarri



gamelu talde bat ikusi nuen basamortuaren erdian zegoen herrixka xume eta zaharkitu baten inguruan.

Hainbeste hondar ikusi ondoren ur garbi eta gardenez beteriko laku zoragarri bat ikusteaz harrিতuta gelditu nintzen. Eguzkia mantso-mantso hondar pilaren atzean ezkutatzen ari zen. Haize bolada indartsu batek bultzatzen ninduela ohartu nintzen, ezin nuen nire norabidea ezagutu, iluntasuna nagusi bait zen. Eguzkiaren dirdaien argitasunaren eta uraren hots eztiaren ondorioz iratzarri nintzen.

Begiak ireki orduko Egiptiarrek garai

batean eraiki zituzten piramide galantak begiztatu nituen. Beraien edertasunak liluraturik utzi ninduen. Nire masailak haizetxo fresko batek laztandu zituen. Itsaso Gorriaren hurbiltasuna nabaritu nuen. Bat batean lasterka bizian Arabia igaro nuen, bertako basamortuetan puntuxo orlegi batzuk bakarrik ikusi nituelarik. Oman ere igaro nuen eta Arabiar itsasoaren gainean baretu nintzen.

Oraingo honetan haize preskoa zen bultzatzen ninduen. Indiar iritsi orduko nire gorputzeko atal bat isuri nuen, behar handia ikusi nuen eta. Aurreraxeago ele-

nintzenez Txinako harresi handia begiztatu nuen. Harresiaren amaierarik ez nuen ikusten. Harresiaren edertasuna zoragarria zen.

Nik nire bideari aurrerantz jarraitu nion eta Txinako harresiak atzera utziak nituen. Itsas ertz batera iritsi nintzenez ikaragarriko jende mordo zegoen itsasontzi batean sartu eta bidaiari ekin genion. Aurrera begiratzen nuen baina beti gauza berdinak ikusteak aspertu eta loak hartu ninduen non hurrengo goizean esnatu nintzenez ustekabe txiki bat hartu nuen, nire jaioterrian nengoela.

JUANXO URDIROZ

Iparragirre eta Nafarroa

Gauza jakina da poeta miseria gorrian bizi beharrekoa dela. Euskal literaturarik atera gabe, ikus bitez Arestiren hitz hauok. 'Jente ezikasi eta jakingabeak persona barragarri bat ikusten du poetarengan. Zertan nabari da poeta dela? ez izatean pezetarik. Nire andre-gaiaren amak (1961 urteko amaginarrebak) eztaki poeta naizela, bestela duda sakonak daduzkat haren alabarekin ezkontzeko baimenik emanen zuenik'.

Iparragirrek ongi ezagutzen zuen miseria gorri sortzaile hori. Bere zahartzaroan, Arabako, Gi-

puzkoako eta Bizkaiko Aldundiek hileroko pentsio bat eman zioten. Nafarroako Diputazioak, ordea, behingo soldata eman zion. Arturo Campion-en bitartez, 4.000 errealetakoa. Nafarroako Mendigorrian zauritu zuten Iparragirre eta etsaiak Urretxuko mutila harrapatzekotan ibili ziren. Bizia doi-doi salbatu omen zuen. Horrez geroztik soldadutzarako ez zen on konfiteroaren semea. Halare 'Glu, glu, glu' poemaren arabera, ez zuen Nafarroa gorrotatzen: 'Biba Rioja, biba Naparra/arku-



Iparragirreren 'Adio Euskalerriri' abestu zuen garaiko kantaririk ospetsuenetariko batek. Julian Gayarrez ari gara.

me onaren iztarra. Jemen guztiok anaiak gero! Ustu dezagun pitxarra. Jakina da Nafarroarekiko zuen iritzia: Esan adiskideak! Orduan bezala, Nafarrakin gaur ere! Anaiak gero!

Jose Maria Satrustegik dioenez, egundoko ohorea jaso zuen Iparragirrek Madrilgo Erret-Antzokian, nafar baten eskuetatik. Oraingoan ere bere zahartzaroan izan zen, Ameriketatik etorria zela. 'Adio Euskalerriri' abestu zuen garaiko kantaririk ospetsuenetariko batek. Julian Gayarrez ari gara. 'Erronkariarrak bazekien euskaraz eta Euskal Herri-tik knpo zebilen bera ere, egilea bezala—dio Satrustegik—, ez da harritzekoa mezuak bihotza ukitzea'. Iparragirre zendu zelarik, zer utzirik ez zuenez, ez zuen testamendurik egin. Jose Zufiria ize-

neko nafar batek erreguka Iparragirreren kitarraren jabea izatea lortu zuen. Satrustegik dioenez, ez zuen egongelako horman kitarra ikusgai ezarri, baizik eta hiru urtez tresna horrekin ibili zen. 1904.ean Jose Zufiria hiltzean, Gernikako Juntetxera eraman zuten kitarra. Jose Zufiria hau garai hartan herriz herri ibiltzen zirenetako kantaria izanez gero, ez litzateke harritzeko Iparragirreren kitarrarekin zenbait jota soinatu izana. Garaiko garbizaletasuna zela eta, beldurtzekoa da Iparragirreren kitarra zahar ibiltaria baino ez ote zuten txalaparta berri mugiezin bat nahiago. Informazio iturriak Yon Etxaideren 'Hamasei seme Euskalerriko' eta Jose Maria Satrustegiren 'Iparragirre eta Nafarroa' artikulua dira.

Udalerri Euskaldunen Eguna ospatuko da maiatzaren 22an Leitzan, eta bertan Urdiain aurkeztuko da elkarte berezi honen azken bazkide gisa. Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako 20 herrik osatutako elkarte honek udalerrietara zuzendutako guztia euskaraz eskaintzea du helburu, euskaldunen kopurua % 80tik gorakoa den herrietan.

Udalerriak euskaraz

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Eguna aukera polita izango da sartu berri diren hiru udalerri nafarren aurkezpen 'ofiziala' egiteko, urtebete ez baitute oraindik egin elkartearen barruan. Leitzak eta Goizuetak iazko urrian onartu zuten euskara hutsez funtzionatzeko erronka, eta Urdiain berriki gehitu da 21 herrik osatzen duten multzo berezi honetara. Hamaika t'erdietan egingo den ekitaldi instituzionalera gonbidatuak daude Jose Maria Rodriguez Otxoa eta Mari Karmen Garmendia, Hego Euskal Herriko Hizkuntz Politikako Zuzendariak, erakundeak bilatzen duen onarpenaren lekuko.

1992an sortu zen Mankomunitate honen helburua teoria soziolinguistikoa hain beharrezkoak diren 'gune elebakarrak' dira, hau da, euskara eguneroko jardueran guztietan presente izatea. Esperientzia ez da berria, Finlandian eta Belgikan ezagunak baitira horrelakoak, baina Euskal Herrian erronka ausarta dela ezin ukatu, mendeetako ohihurtari buelta ematea baita helmuga. Beraz, eta hizkuntza batek irauteko horrelako guneak ezinbestekoak dituela kontuan harturik, Euskal Herrian Euskarazek 1988an hasi zuen euskara hutsezko zonaldeak bultzatzeko lana. Euskara hutsean funtzionatuko luketen udalen aldeko mozioa aurkeztu zuen Euskal Herri osoko hainbat udaletan, eta 32k onartu zuten proposamena. Urtebete geroago Euskararen Erabilpena Normaltzeko Udalarra idatzi eta onartu egin zuten udalek, baina Gobernu Zibilek errekursoak jarri zituzten. Hiru urte itxaron behar izan zen, 1992ko otsailera arte hain zuzen, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak orduan eman baitzion oniritzia Beasaingo Udalak Udalerri Euskaldunetako onarturiko mozioari. Lehen urratsa emana zegoen, eta hortik aurrera koordinazioaren beharra nabarmendu zen.

UEMaren datuen arabera, Hego Euskal Herrian ehun bat udalerri euskaldun dira, eta bertan 100.000 biztanle inguru bizi da. Arrunt esanguratsua gune hauen garrantziaz jabetzeko. Horietako gehienak mila biztanletik beherakoak edo mila ingurukoak dira, eta soilik bost dira 5.000 biztanletik goitikoak. Bi mila eta bost mila bitarteko populazioa dutenen artean, hiru dira nafarrak: Etxarri-Aranatz, Lesaka eta Leitzan.

Mankomunitatean sartzeko derrigorrezko baldintza bat bete behar da: euskaldunen kopurua biztanleen % 80tik gorakoa izate

tea. Ondoren, UEMaren estatuak onartu eta udal-araudia atera behar da aurrera. Bertan zehazten da euskararen erabilera udal administrazioan. Helburua: Udaletik ateratzen den informazio oro euskara hutsez izatea. Bost urteko epea daukate horretarako udalek, eta baita mankomunitatearen jarraipena ere.

Epe honetan lortu nahi den udalaren jardueran ofiziala euskaraz izan dadin ezinbestekoa da, UEMaren ustetan, alkatea eta zinegotzi guztiak euskaldunak izan eta langileriaren gaitasuna ziurtatzea. Beraz, lanpostu bakoitzari dagokion Hizkuntz Eskakizuna zehaztuko da eta horretan idazkariak izugarriko garrantzia du. Bera da, azken finean, hizkuntz normalizazioaren burua Udalean. Bestalde, udal administrazioaren jardueran osoa euskaraz egingo da eta horretarako errotulu, inprimaki, kartazal

eta gainerako guztia euskaraz egongo da.

Arazoak, baina, ez dira falta. Goizuetak onartutako ordenantzen testua errekurritu egin du gobernuak, eta Leitzan ez zen erabakia aho batez hartu, Udala osatzen duten hiru taldeetatik bategi, La Milagrosak, ez baitzion oniritzia eman. «Normala izan da», dio David Anaut euskara teknikariak, «talde hau euskararen inguruko edozein mozioaren aurka azaltzen baita beti». Herriari, ordea, arazorik edo kontrako jarrerarik ez dela izan azaldu du Anautek. Herri barruko arazoez gain, kanpotik datozenak izan ohi dira garrantzitsuenak. «Udalaren esku dagoena betetzen da», dio teknikariak, «baina kanpotik datorrenean zailagoa da. Adibidez, Udalaren lan kontratuak, edota herrian dauden langileak —medikuak, erizainak—. Hala ere, nik uste dut

aurrera egiteko konpromisua badagoela, oso serioa gainera».

Nafarroan 25 bat dira UEMAn sartzeko baldintzak betetzen dituzten herriak, eta bilerak hasiak dira haiekin. Anauten ustetan, Sakanan eta Bortziritan daude aukerarik handienak, eta horretan egin behar dute lana aurrerantz. «Arantzak, Etxalarrek eta Igantzak betetzen dituzte bal-

dintzak eta aukera ona da. Hala ere, arazo handiena diruarena da, mankomunitateari ordaindu behar zaion kuota dela eta. Sakanan ere Arbizu izan daiteke oso egokia, eta Malerrek, Ituren, Zubieta edo Oitz herriak ditugu buruan. Beste tokietan zailagoa da, baina garrantzitsua da eremu bakoitzean herriren bat izatea, eredu izan dadin besteendako».

Urdiain, azkena

P.U. / IRUNEA


Urdiain izan da Mankomunitatean sartutako azkena. Burundako herrixkak, horrela, Goizuetak eta Leitzak hartutako bideari jarraitu dio, martxoaren 4ko udal bilkuran hartu zen erabakiaren bidez, eta asmoz beterik

agertzen da erronkaren aurrean, horretarako aurrerapausoak emanak dituelako edo. «Bandoak euskara hutsez hasiak gara ateratzen», dio Mikel Galartza zinegotziak, «eta hemendik aurrera laburpen txikia egingo dugu erdaraz, ondoan, piktogramen bidez eta. Ez diogulako inori arazorik sortu nahi». Udaletxean izango diren inprimaki guztiak ere euskaraz izango dira, baina norbaitek hala eskatuz gero, elebidunak emango zaizkio.

Urdiainen, 1991ko erroldaren arabera, populazioaren % 86 da euskalduna, baina erabilera franko jaisten da, batez ere gazteen artean. Hori dela eta, egun Udala osatzen ari den ordenantzek arlo hori ere kontuan hartuko dute, eta kalean euskara bultzatzeko proposamenak zehaztuko ditu.

Erabakia aho batez onartu zela eta kontrako jarrerarik ez zela agertu dio Galartzak; baina arazoak, izan, izan dira. Toki gehienetan sortzen direnak, bestalde: idazkaria erdalduna zen, eta aurretik euskaltegi batean ari da ikasten, 8. urratsean, Udalak librantza emanda. Oso luze gabe EGA titulua eta euskara teknikoari buruzko ikastaroak egingo ditu. Bestalde, «urteetako inertzia» aipatzen du zinegotziak. Diru arazorik ez omen da, ordea. «Jakina dirua eskatzen duela, baina argi dugu hori dela gure lehenetsua, hizkuntz politikak lehenetsua izan behar duela. Euskal Herrian gaude, ez Guadalupean, eta hizkuntza premiazkoa da guretzako. Testimonialtasunetik ihes egin behar dugu, eta badakigu baiezekoak dirua, lana eta nekea eskatzen duela».

Nolanahi ere, erronka polita dela ezin ukatu. Eta lehen emaitzak ikusten hasiak dira urdiaindarrak. «Medikua erdalduna da, eta erizaina euskalduna. Horrengatik bakarrik, aldea badago jendeak biekin dituen harremanetan artean. Beraz, aldea badago normalizazioarekin», dio Mikel.



«Ideiak baino ez ditugu»

A. BARANDIARAN / ALTSASU

Julian Gaiarre tenore famatuak erabilitako trizikloak, Indurainek irabazitako maillotak, Txinako bizikletak, pedalkak izan zituen lehen tramanakulua... Hori eta askoz gehiago ikusi ahal izan zen joan den igandean Altsasuko Burunda frontoian, bertako lagun batzuek osatu duten Bizikletaren Fundazioak antolatutako erakusketa erakargarrian. Txi-


arreta erakartzeko zerbait, baina, era berean, balioa izango zuena. Eta gutako batek aipatu zuen: 'Txirrindularitza pururia dagoela kontuan izanik, horri buruz egin beharko genuen zerbait'. Izan ere, bizikleta mundu guztiak ezagutzen du, baina oso jende gutxi daki nondik datorren eta nolakoa izan den bere bilakaera. Eta Fundazioaren eta Museoaren ideia bururatu zitzaigun. Dirua eta lan handia eskatzen zuen,

ezagutzen genuen zerbait, ikusiak genituen gauza batzuk, eta nik, adibidez, ikusia nuen Erronkariko Gaiarre Museoan bizikleta bat. Ba, beraiekin harremanetan jarri ginen, eta handik bi triziklo ekarri ditugu. Eta baita fakturaren fotokopia ere. 1887ko abuztuaren 11n erosi zituen Julian Gaiarre bizikletak, Londresen. Triziklo horietako bat tandem bat da. Pena da, nahiko izorratuak etorri direlako, baina guk kon-

dena. Betiko nahi dugu hau, eta gure ondorengoek jarraitu beharko dute honekin. Hala ere, ideiak baino ez ditugu. Ez daukagu ezta lokal bat ere eta nahiz eta zenbait urrats eman Iruñean, ez dakit... gogorik gabe ikusi ditugu. Nik uste dut ideia hau Iruñean edo Atarrabian sortu izan balitz aurrera aterako zela, baina oraindik ikusiko dugu, ederra eman behar dugulako.

EGUNKARIA.— Zer da gehien behar duzuen? Lokal bat, dirulaguntza gauzak erosteko?

EIZAGIRRE.— Erosketa oso gauza mantsoa da, badakigulako horrelako tresnak dauz-



Erakusketak altsasuar guztien laguntza behar duela azpimarratu du Eizagirrek. ALBERTO BARANDIARAN

rrindularitzarekin harremana handia izan duten altsasuarrek osatu dute taldea, eta horien buruan Juan Jose Eizagirre txirrindulari ohia. Berak dioenez, ez da horretan utzi behar, ondorengoek jarraitu beharreko gauza delako, baina ez omen du harrera onik ikusi Administrazioaren aldetik. «Iruñean edo Atarrabian egin izan balute...». Asteburu honetan berriro izango da erakusketa paregabe hau ikusteko aukera, toki berean.

EGUNKARIA.— Nola bururatu zitzaizuen Altsasun bizikletaren museoa egiteko ideia?

JUAN JOSE EIZAGIRRE.— Ba, zenbait lagun bildu ginen herrian zerbait egiteko. Egindako guztiak porrot egina zuela eta, buruari bueltaka aritu ginen, zer egin genezakeen herriaren alde. Nahi genuen jendearen

baina horretan jarri ginen, eta horrela ateratu da. Erdi brometan hasi ginen, baina azkenean konturatu gara merezi zuela.

EGUNKARIA.— Zuen asmoa bizikletarekin zerikusi duten mundu guztiko gauzak ekartzea da?

EIZAGIRRE.— Erakusketan badugu baita Txinako bizikleta bat ere! Hor dago ere 1860ko beste bizikleta bat... Baina gure asmoa da herriko jendeak jarrai dezala honekin, ez dabilta bakarrik honetan geldi!

EGUNKARIA.— Joan den asteburuan bildu zenituzten pieza guztiak nola lortu dituzue?

EIZAGIRRE.— Batzuk kasualitatez, besteak batekin eta bestearekin hitz eginez. Gu hasi ginen gai honekin udazkenean eta abenduan elkarrekin osatu zen ofizialki. Orduetik aurrera hasi ginen mugitzen. Denok

pondu ditugu hemen. Gero Hazparden (Lapurdi) bizikletari buruz erakusketa zoragarria izan zela esan ziguten. Beraiegana joan ginen, eta festak zirela eta antolatutako erakusketa bat izan zela esan ziguten. Kanboko lagun batena zen. Harekin harremanetan jarri, eta bera primeran portatu da. Bildumazalea da, eta gure erakusketarako kamioi oso bat bete tresna bidali digu: bizikletak, tresneriak, maillotak, argazkiak... Horretaz gain, bidali dizkigute gauzak, eta toki guztietatik jaso ditugu.

EGUNKARIA.— Hemendik aurrera zer egin nahi duzue? Piezak erosi museoa egiteko, urtero-urtero erakusketa egin...?

EIZAGIRRE.— Guk ez dugu erakusketa hutsa sortu nahi, urteen poderioz desagertuko

kanari kostan egiten zaiola uztea. Hala ere, bada material asko zer daukan ez dakien jendearen esku. Ganbaratan edo daukate. Beraz, guk esan nahi diegu hor daukatenak ez duela dirurik balio, baiña balioa, ordea, baduela. Pieza horiek toki egokian paratu behar dira, eta horiek dira eskuratu nahi ditugun tresnak. Eta zerbait erosi ahal baldin bada, erosiko genuke. Lokala, ordea, zaila da, lokal handia behar dugulako. Lokal ona ikuztegi zaharra izango litzateke, baina hori dagoeneko beterik dago...

EGUNKARIA.— Jendearen harrera zer moduzkoa izan da?

EIZAGIRRE.— Igandean, jendeak ez zuen hori espero. Harriturik gelditu zen, eta oso pozik. Herri osoa egon zen, eta denak aho zabalik gelditu ziren. Orain dena itzuli beharko dugu, baina hurrengo urtean gauza gehiago ekarriko ditugu.

Juan Jose Eizagirre

BIZIKLETAREN
FUNDAZIOAREN
LEHENDAKARIA



«Ideia hau Iruñean edo Atarrabian sortu izan balitz, aurrera aterakozen, baina administrazioa gogorik gabe ikusi dugu».

SOSLAIA

Txirrindulari ohia

Hamabost urte zituela hartu zuen parte bere lehen lasterketan, Iruñean, eta hirugarrena heldu. Esprinterra zen Eizagirre, meritu handikoa, eta txirrindulari fina, baina Orbaizeta eta Trueba txirrindulari handiekin topatu zen. Gerra ondorengo urte haietan profesionalen eta amateurren arteko diferentzia azpimarratu du, baina begirune berezia dio Orbaizetari. «Bera zen onena», dio. Oraindik ez du bizikleta erabat utzi, eta bi aste barru Asturiasko Enoleko Lakuetara igoko da. Elkarrizketa ere atzeratu behar izan genuen, Espainiako Itzulia telebistaz ikusi nahi zuela eta...

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

